

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3095

AGINDUA, 2012ko ekainaren 20koa, Kulturako sailburuarena, publikoak ez diren artxiboak antolatzeke, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautzen duena.

Kultura Sailaren artxibo alorreko politikaren helburuetako bat da artxibo-funts pribatuak antola daitezen sustatzea, horrela ondare dokumental hori egokiro kontserbatu eta kontsulta eta zabaltze bidean jartzeko.

Horretarako, duela urte batzuetatik hona diru-laguntzak arautzen dituen agindu hau argitaratu ohi da; eta orain arte emaitza positiboak eman dituenek, komenigarritzat jo dugu deialdiari eustea.

Aginduaren filosofia lankidetzan datza, aldean elkarrekiko errespetuan eta bakoitzaren erantzukinean: lankidetzan, alde batetik, Euskadiko Ondare Dokumentalaren politikaren ardura duen Kultura Sailaren aldetik, eta bestetik, publikoa ez den Euskadiko ondare dokumentalaren titularren aldetik (artxibo-funtsak, agiri-bildumak eta agiri bereziak). Filosofia hori espresuki jasotzen du Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak.

Euskal Kultura Ondarearen Legeak hainbat muga ezartzen dizkie, ordea, ondasun horien titularrei. Bistan da, horrenbestez, Administrazioak ahalegina egin behar duela muga horien trukean halako erraztasun edo ordainak emateko, gero Legeak xedatzen dituen arauak betetzeko exijituko badu. Alde bi horien arteko lankidetzan eta onbideak ziurtatuko du denon gogoan dagoena benetan konpliztea, alegia: lankidetzan bide sendoak zabaltzea, arian-arian ondare dokumentalaren zati hau sare eta informazio-gune publikoetan sartzeko, ondasun horien titularren eskubideak inola ere urratu gabe, Legeak berak jaso eta aldeztu duen bezala.

Hori lortzeko asmotan, artxibo funtsen jabeek proposatutako programetan oinarrituta lankidetzan lortu nahi da. Honi lotuta, haxe ulertuko da Artxibo programatzat: urtebetean zein denbora-tarte laburragoan, dokumentu edo artxiboei buruz lan jakin bat egiteko proposamena eginez, diru-laguntza eskabidea eragiten duen proiektua.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea hau da: publikoak izan gabe, Euskal Herriko Ondare Dokumentala osatzen duten artxiboetako dokumentuetan, artxibo funtsetan zein agiri bildumetan programak burutzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea, betiere, helburua hauetakoren bat izanik:

a) Artxibo-funtsak antolatzea eta artxiboen tratamendua hobetzea.

b) Artxibo-funtsak digitalizatzea, betiere aurretik datu-baseetan antolatuta eta deskribatuta badaude. Proiektu horiek betiko gordeko den artxibo digitala sortu beharko dute eta baita ere dagozkion kopia digitalak Euskadiko Artxiboen Sistema Nazionaleko web orrian hedatu ahal izateko. Aurkezten diren proiektuek agindu honen A) eranskinean jasotako baldintza teknikoak bete beharko dituzte.

c) Informazioa zabaltzea, Badator Zerbitzua erabiliz.

2.– Aurreko zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 56., 57. eta 58. artikuluetan dauden definizioak erabiliko dira artxiboetako dokumentu, artxibo funts eta agiri bilduma kontzeptuak zehazterakoan.

2. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honetan ezartzen diren diru-laguntzak jaso ditzaketenak, Euskal Herriko Ondare Dokumentala osatzen duten artxiboetako dokumentuen, artxibo funtsen zein agiri bildumen jabe izanik, publikoak ez diren pertsona fisiko eta juridikoak izango dira, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 55. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Diru-laguntzak onartzeko eta, hala badagokio, onuradunei ordaintzeko, ezinbestekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo bere Erakunde Autonomiadunek emandako antzeko diru-laguntzaren bat dela-eta, oraindik itzulketa edo zigor prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura horri amaiera ematea.

3.– Agindu honetan araututako laguntzen deialdira ezin izango dira aurkeztu, kasuan kasuko zigorrek ezarritako epean, sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penala jasotako pertsona fisikoak edo juridikoak, ez eta 4/2005 Legean, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa Legea dela bide debeku horrekin zigortutakoak ere.

3. artikulua.– Diru-baliabideak.

Agindu honetan ezarritako helburua betetzeko, ehun eta berrogeita hamar mila (150.000) euroko diru kopurua erabiliko da, eta EAEko 2012ko Aurrekontu Orokorretan horretarako berariaz ezarrita dagoen diru-ataletik aterako da. Aipaturiko zenbatekoa gehitu ahalko da Agindu honetako Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera.

4. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesdunek bide elektronikoak erabiltzeko aukera izango dute prozeduraren izapideak egiteko, eskatzeko eta kontsultatzeke.

2.– Izapide elektronikoa honako dekretu eta ebazpen hauetan arautu da: 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa (2012ko martxoaren 9ko EHAA, 50. zk.); 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrerari, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa, eta 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariarena, e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidetzeko argibideak (bide presentziala edo elektronikoa erabilita), euskadi.net-eko gune elektroniko honetan daude eskuragarri:

https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12_apr/eu_dirulag/dirulag.html.

4.– Diru-laguntzaren eskabidea eta dokumentazioa aurkezterakoan bide bat erabiltzeak (presentziala edo telematikoa), ez du prozeduraren hurrengo pausoetan bide bera erabiltzera behartzen, batetik bestera edozein unetan alda daitekeelarik.

Eskabidearen ondorengo izapideak bide elektronikoak erabiliz ere aurkeztu ahalko dira honako helbide honetan: <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>.

5. artikulua.– Pertsona edo erakunde eskatzaileen betebeharrak / baldintzak.

1.– 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 50.2 paragrafoan aurreikusitakoari jarraikiz eska daitekeen beste edozein betebeharrak.

2.– Pertsona fisikoa izanez gero, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egotea. Betebeharrak hau nahitaezkoa da ordainketak egin ahal izateko.

3.– Pertsona juridikoa izanez gero, lege sortuta eta dagokien erregistroetan edo administrazio-erroldean izena emanda egotea.

6. artikulua.– Pertsona edo erakunde eskatzaileen betebeharrak / baldintzak egiaztatzea.

1.– Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki eta behar hainbat aldiz, diru-laguntza eskatu duten pertsonen/entitateen Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela, eta horretarako ez du eskatzaile horien oniritzia behar, halaxe xedatzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak. Zergak Nafarroan ordaindu behar dituzten kasuan, zerga guztiak ordainduta dituztela frogatzen duten agiriak aurkeztu behar dira.

2.– Eskatzaileak baimena eman ahal izango du laguntzak kudeatzen dituen organoak gainerako datu edo dokumentuak eskuratu edo egiaztatu dituzan, bai bide presentziala erabiltzen denean bai elektronikoa erabiltzen denean ere, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezartzen duenaren arabera (1997ko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira eskaera-orri normalizatuan honako betebeharrak hauek:

a) Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea.

b) Ez egotea dirua itzultzeko prozedura batean edo zehapen-prozedura batean sartuta, edo horrelakorik izanez gero, amaituta izatea.

c) Erakundea behar bezala eratuta eta dagokion erregistroan izena emanda egotea.

d) Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta diru-laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adieraztea.

Gainerako betebeharrak egiaztatzeke modua lehenago aipaturiko [euskadi.net](https://www.euskadi.net) gune elektronikoan adieraziko da.

7. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetako diru-laguntzak.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

1.– Deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak behar bezala beteriko eskaera-orri normalizatu baten bidez aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzako Herriarrentzako Arreta Bulegoetan, Lurralde Ordezkaritzetan edo beste erakunde laguntzaile batzuetan zuzenean edo 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Eskaera-orria aipatutako gune elektronikoan eskura daiteke (https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12_apr/eu_dirulag/dirulag.html).

3.– Halaber, eskabideak bide elektronikoa erabiliz ere aurkeztu ahalko dira, euskadi.net guneko honako helbide honetan:

https://www.euskadi.net/y22-izapide/eu/contenidos/ayuda_subvencion/12_apr/eu_dirulag/dirulag.html.

4.– Erakunde edota pertsona eskatzaileek nahi duten hizkuntzan, euskaraz edo gaztelaniaz, aurkeztu ahal izango dute eskaera, atxikitako dokumentazioarekin batera. Halaber, pertsona edota erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan, Euskararen Erabilpena Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan. Aipaturiko eskabideari honako dokumentu hauek gehituko zaizkio:

a) Eskatzailea pertsona fisikoa baldin bada, beharrezkoa izango da eskatzailearen identitatea egiaztatzea.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa baldin bada, eta erakundea EAETik kanpoko erregistroren batean izena emanda badago, egiaztatu beharko dute bere nortasun juridikoari dagokion legezko eraketa, ordezkaria den pertsonaren identitatea eta daukan legezko ordezkartzako ahalmena.

c) Eskatzailea pertsona juridikoa baldin bada, eta erakundea Euskadiko dagozkion erregistroetan izena emanda badago, ez da aurkeztu beharko erakundeari dagokion inolako dokumenturik.

5.– Diru-laguntza jaso dezaketen jardueri dagokion dokumentazioa.

a) Burutzekoa den programa bakoitza azaltzeko txostena.

b) Diruz lagunduko den programa bakoitzaren aurrekontua.

9. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ikusten badu eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

10. artikulua.– Eskabideen azterketa eta ebazpen-proposamena.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta balioesteko, epaimahai kalifikatzailea eratuko da. Hauek izango dira kideak:

a) Kultura Ondarearen zuzendaria edo berak izendatutako norbait. Batzordeko lehendakari izango da eta kalitate botoa izango du, bere botoarekin berdinketak desegiteko.

b) Kultura Ondareko Zuzendaritzako Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroko (Irargi) bi teknikari, Kultura Ondareko zuzendariak izendatuak. Horietako bat batzordeko idazkari izango da.

2.– Diru-laguntzak lehiaketa bidez esleituko dira. Horretarako, eskabideak 11. artikuluan finkatutako irizpideen arabera puntuatu eta ordenatuko dira. Ondoren, diru-laguntzak esleituko dira, puntu gehien duen eskabidetik hasi eta 3. artikuluan ezarritako aurrekontu-kreditua amaitu arte edo, xedapen gehigarriaren arabera kopuru hori eguneratzen bada, kopuru berri hori amaitu arte.

3.– Eskabideak baloratzeko eta hautaketa egiteko ezarritako irizpideak kontuan hartuta, epaimahaiak ebazpen-proposamena egin eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari igorriko dio.

11. artikulua.– Eskabideak hautatu eta baloratzeko irizpideak.

Ebazpen-proposamena egiteko eta diru-laguntzen zenbatekoa finkatzeko, epaimahai kalifikatzaileak irizpide hauek izango ditu kontuan:

a) Programa bakoitzaren sendotasun zientifikoa (% 40).

b) Programa bakoitza epe luzerako jarduera baten osagai izatea, bai aurretiaz egindakoari jarraipena emateko, bai programa horrekin proiektuari hasiera emateko (% 20).

c) Artxiboa osatzen duen material dokumentalaren berri emateko borondatea (% 20).

d) Euskarari dagokionez, programaren barruan estandar deskribatzaileak edo interes artxibistikoa izan dezaketen beste osagai batzuk egotea (% 15).

e) Programa bakoitzaren errentagarritasun zientifikorik hoberena bermatzeko beste edozein osagai (% 5).

12. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa eta mugak.

1.– Diru-laguntzek, onuradunak aurkeztutako programa bakoitzari dagokionez, onartutako burutze aurrekontuaren % 70a hartuko dute gehienez ere (zergak kenduta), programa bakoitzean diru-atal jakinetara zuzen daitekeelarik diru-laguntza.

2.– Programa bakoitzari gehienez jota eman dakioken diru-kopurua ez da inola ere 28.000 eurokoa baino handiagoa izango.

13. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak erakunde publiko zein pribatuek helburu berberaz emandako beste laguntza batzuekin bateragarriak izango dira, betiere guztira jasotako diru-kopuruak aurrekontu osoa gainditzen ez badu. Horrela gertatuz gero, eman beharreko diru-laguntzatik kendu egingo da dagokion kopurua, lagundutako programaren kostu osoari dagokion gehienezko kopurura egokitu arte.

14. artikulua.– Eskabideen ebazpena.

1.– Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari dagokio, osatutako ebazpen-proposamena ikusita, aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpena ematea. Ebazpenak hilabeteko epean eman eta jakinaraziko zaizkie, banan-banan, interesatuei, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita.

2.– Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Artikulu honetako lehenengo paragrafoan adierazitako epea amaitu eta inolako jakinarazpenik jaso ez badute, interesatuek beren eskabidea errefusatzat jo dezakete Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Aipatutako ebazpenak ez du agortzen administrazio bidea, eta beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kulturako sailburuari jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

15. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek bete behar dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, pertsona/entitate onuradunek diru-laguntza eman zaiela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean berariaz uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Jasotako diru-laguntzaren ondorioz burutzen diren jardueretan, Kultura Sailaren babesaren berariaz aipatzea.

d) Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen erabilera kontrolatzeko behar duten informazio guztia ematea.

e) 4/2005 Legean, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, xedatutakoa betetzea bermatzea.

f) Eskabidea aurkezteko unean hartuko zutenik jakin ez edo adierazi gabe geratu eta ondoren xede berberaz jasotako gainerako diru-laguntza guztien aipamena.

16. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntza zati bakar batean ordainduko da, justifikatu eta gero.

17 artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.– Justifikazioak Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Arreta Bulegoetan, Lurralde Ordezkaritzetan edo beste erakunde laguntzaile batzuetan aurkeztuko dira zuzenean edo 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

2.– Halaber, justifikazioak, bide elektronikoa erabiliz, hemen aurkez daitezke: <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>.

3.– Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak jaso dituztenek, diruz lagundutako jarduerak bukatu eta ondorengo bi hilabeteetan eta, betiere, 2012ko abenduaren 31 baino lehenago, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) Diruz lagunduta burutu den programa bakoitzari buruzko txosten zehatza.
- b) Diruz lagundutako programa bakoitza burutzean izandako gastuei dagozkien egiaztagiria, jatorrizko fakturak zein fotokopia konpultsatuak, eta sarreren eta gastuen balantzea.
- c) Diruz lagundutako programa edo proiektua burutzerakoan sortutako material zientifikoak (inbentarioak, datu-baseak etab.), halakorik baldin badago behintzat.

18. artikulua.– Diru-laguntzaren likidazioa.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero (betiere, helburua bete dela iritziz gero) edo beste edozein erakunde publiko zein pribatutik ere diru-laguntzaren bat jasoz gero, diru-laguntzak esleitzeko emandako ebazpena aldatu egin ahal izango da.

Horrelakoetan, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du, diru-laguntzen zenbatekoak doitzeko.

19. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

1.– Hauek izango dira ez betetzeak:

- a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoetan erabiltzea.
- b) Agindu honetan edo laguntza emateko egintzan adierazitako betebeharrak ez betetzea.
- c) Diruz lagundutako egitasmoa aldatzea Kultura Ondarearen Zuzendaritzak aurretik baimenik eman gabe.
- d) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea (hala badagokio).
- e) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharrekotzat jotako beste edozer ez betetzea.

2.– Ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horien itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Hirugarren artikuluan jaso diren zenbatekoak aldatu egin ahal izango dira, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Kultura Sailean laguntzak emateko beste egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratutako diruaren arabera, betiere diru-laguntzak ebatzi baino lehen.

Bigarrena.— Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako sariak eta deialdi honekin zerikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Kultura Ondarearen Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Kultura Ondarearen Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaioke Kulturako sailburuari hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezake Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bigarrena.— Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 20a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

A ERANSKINA

BALDINTZA TEKNIKOAK

1.– Soilik datu-baseetan deskribatutako artxibo-funtsak digitalizatuko dira, deskribapen-fitxa bakoitzari –digitalizazio-unitatetzat hartuko da- bilduma- eta item-kodearen metadatuak gehituko zaizkie. Datu-basearen formatua larrigiko teknikariekin koordinatuko da, eta FileMaker programa hobetsiko da. Fitxategiek erreprodukzio-tresneriaren kapturako jatorrizko metadatu teknikoak izango dituzte. Fitxategi digitalek metadatu teknikoak izango dituzte, EXIF 2.2 estandarren arabera. digitalizazio-prozesuari dagokion informazioarekin.

2.– Digitalizazioa nagusiki aireko eskaner edota argazki-kamerarekin egingo da, horrela agindu honetan eskatutako kalitatea eta baldintza teknikoak bermatuko dira.

3.– Dokumentu guztiak tonu jarraituko irudi gisa hartuko dira, eta, beren edukia eta egoera fisikoa zehaztasun handienaz erreproduzitzeko, kolore errealean digitalizatuko dira, kolorearen bizitasuna, gutxienez, 24 bitekoa izango da.

4.– Digitalizatzerakoan gutxieneko bereizmena 5600 x 3700 pixelekoa izango da, 300 ppp-tan, dokumentua beti kalitate fotografikoarekin inprimatu ahal izateko, gutxienez jatorrizko neurrian. Adierazitakoa baino bereizmen handiagoa erabiltzea hobekuntzat hartuko da edota digitalizazio kalitatearen balio erantsi gisa. Ezaugarri bereziak dituzten dokumentuen kasuan –hala nola, paperezko argazkiak, gardenkiak, planoak, entzunezko dokumentuak etab.–, era berezian digitalizatu beharko dira, haien ezaugarriak eta larrigik ezarritako baldintza teknikoak kontuan izanda.

5.– Digitalizazioa beti «orrialde bikoitza» sistema erabilita egingo da, hots, dokumentu edo espedientearen aurreko ifrentzua eta hurrengo aurkia irudi bakoitzean. Espediente bakoitzaren eskuinaldean geratzen den lehen folioan (aurkia) eta ezkerrean geratzen den azken folioan (ifrentzua) izan ezik, kasu horretan hasierako eta bukaerako fotograma bana egingo dira. Item bakoitza bereizita digitalizatuko da.

6.– Digitalizatutako irudi bakoitzeko larrigiri entregatu beharko zaizkio:

6.1.– Fitxategi bat TIFF 6/0/ISO formatuan, konprimatu gabe eta kapturako gehieneko bereizmenarekin. Artxibo hau segurtasun-fitxategitzat hartuko da.

6.2.– Fitxategi bat JPG formatuan, jatorrizko kaptura-fitxategitik eratorria edota, halakorik ezean, segurtasun-fitxategitik. Artxibo hau digitalizazio mastertzat hartuko da.

6.3.– Fitxategi bat JPG formatuan, hau ere jatorrizko kaptura-fitxategitik edota segurtasun-fitxategitik eratorria, bereizmena 3266 x 2100 pixelekoa izango da 175 ppp-tan, eta jatorrizko kalitatea edo konpresioa % 60koa, eta Interneten hedatzeko optimizatua.

6.4.– Artxibo-funtsek argazkiak badituzte, argazki bakoitzeko kaptura-fitxategi bat gehituko da RAW formatuan, arau orokorretan zehaztutakoez gain.

7.– Artxibo-funtsek entzunezko dokumentuak dituzten kasuan, larrigiri entregatuko zaizkio:

7.1.– Lehen kopia digital bat AIFF formatuan, segurtasun-fitxategi gisa.

7.2.– Bigarren kopia digital bat WAV formatuan, digitalizazio-master gisa.

7.3.– Hirugarren kopia digital bat MP3 formatuan (128 KB/s), zabalkunde- edota kontsulta-fitxategi gisa.

8.– Halaber, Irargiri entregatuko zaio item edota dokumentu-unitate bakoitzeko fitxategi bat PDF formatuan, dokumentu-unitate bakoitzaren orrialde guztiekin eta jatorrizko dokumentuaren segida berean ordenatuta. PDF fitxategi hori dagozkion segurtasun-fitxategi edo digitalizazio-masterretatik sortuko da, eta horretarako aurrez beharrezko konpresioa –ordenagailu pertsonal estandar batean eroso erabili ahal izateko modukoa– aplikatuko zaio. Erreferentzia gisa gomendatzen da ondoriozko PDF fitxategiko orrialde bakoitzak 2 MB-ko neurria ez gainditzea, horretarako 6-9 arteko konpresio-mailak erabili behar dira, 0tik 12ra arteko eskala batean.

9.– Irargiri entregatuko zaizkio kopiak biltegitratzeko edota entregatzeko honako formatuak:

9.1.– Kontserbazio– eta kontsulta-kopia bana, gutxienez 500 GB-eko edukiera duten disko gogorretan, eta USB 3.0 edo Firewire 400/800 ataka bidez konektatu ahal izateko moduan. Halaber, fitxategi guztiak zuzen irekitzen edota irakurtzen direla ziurtatu beharko da, balizko grabazio akatsak ezabatzeko.

9.2.– Disko gogorra grabazio-formatu hibridoan grabatuko da, hau da, formateatuta fitxategiak irakurtzeko moduan bai Windows sistema eragileetan bai Apple-en MacOS nahiz Linux/Unix-en.

9.3.– Biltegitratze-euskarriek, jatorria zein den jakiteko, erakundearen identifikazio-datuak eraman beharko dituzte eta, hala badagokio, irudien titulartasuna. Euskarri guztiek edukia jakiteko beharrezko informazioa eramango dute: zenbakia, izenburua, edukia eta sortze-data.

9.4.– Zabalkunderako kopia digitalek ur-marka agerian eramango dute, eta, bertan jatorrizko Artxiboa edota jatorrizko dokumentuak zaintzen dituen erakundea identifikatuko da. Irargik formatu estandarra eskainiko du. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako digitalizazio-proiektuen ardurapean erreproduzitutako dokumentuen irudien kasuan, Kultura Sailaren zigilua eta izena eramango dute eta, baita ere, dagokion zuzendaritza-zentroaren izena, indarrean dagoen Eusko Jaurlaritzaren korporazio-identitatearen eskuliburuaren arabera (Eusko Jaurlaritzaren web orrian eskuragarri dago). Irudiak ez diren (entzunezkoak etab.) kopia digitalen kasuan, irudi digitalentzako arestian aipaturiko informazioa dagokion fitxategiaren metadatueta jasota egon beharko da.

9.5.– Baita ere gomendatzen da PDF formatuan dauden kontsulta-fitxategiak DVDan grabatzea.